

*573/1976 otsailaren 25ko Dekretoa, zeinetan onartzea ematen zaion Euskeraren Akademiari, Euskeraren Erret Akademiaren izena ipintzen zaiolarik.*

Euskerak beti izan ditu bi dohain hauk: bata hizkuntza bizia eta herriak mintzatua izan dela eta dela orain ere; eta bestea, Europako hizkuntzarik zaharrenen agerbide bakarra izatea. Hori dela eta, makina bat jakitun argik hizkuntza huni kasu eman eta bere estudio eta azterketak eskeini dizkio. Aski izan bedi, beste batzuen artean, Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Cejador, Azkue, Menéndez Pidal eta Tovaren izenak gogoratzea.

Bere baitako orijinaltasunaz gainera, euskerak zera eskeintzen dio ikertzaileari: bizitze luzean zehar kondaira eraginaren ondorioz ezarri zaizkion hizkuntz estratoen aztarna. Mendeetan barrena, alegia, bata bestearen segidan, hizkuntzan gertatu diren har-emanen kutsua eta oinatza. Horregatik, eta zibilizazio baten lekuko bakarra delako, bai gizatiar aldetik eta bai kultur aldetik ere balio apartekoa du. Hala zioen Ramón Menéndez Pidal jaunak Bilbon 1921. urtean egindako hitzalditan:

Zuen herri hunek badu zori handi bat: Hispaniako aintzinatearen erlikiarik beneragarriena gordetzen duela. Bestek gehiago balio lezake arte aldetik, miretsiago eta gutziatuago izanen da gehienetan, baina hizkuntza hunen garrantzia duenik ez da. Beronen estudio sakona egin gabe, ezingo dira sekula Hispaniako zibilizazioaren



oinarriak eta lehen urratsak osotoro argitu, eta zibilizazio hori ez da bere muinean konprenitua izango.

Euskeraren literatur lantzea Pizkunde garaian hasten da. Erdi Aroko olerki epikoa eta lirikoa, ahoz-aho emana, XV eta XVI. mendeetako dokumentuetan bildu zen. XVI eta XVII. mendeetan Detxepare, Leizarraga, Axular eta beste zenbaiten obrak argitaratu ziren. Gero, XVIII. mendean, euskeraz idazteak gehitze nabaria ezagutzen du, Larramendiren lan jakintsuei eta Mendiburu, Mogel eta beste langile argiren obrei eskerrak.

Gaur-eguneon herriak gorde, erabili eta eskutik eskura bezala eman izan duen hizkuntza hunen bizia eta iraupena babesteko kezka nunahi da ezagun Espainian. Eta hain zuzen, herri horretatik sortu da, bere gisako gertakaria bezala, bertsolaria, ahoz-aho emate horren aitzindari jatorra. Euskarak herrian duen erroztapena jakiteko bertsolaria dugu agerbiderik ederrena. Aipagarri da, beste batzuen artean, Jose Mari Iparragirre, zeinen izena hartu zuen euskerazko literatura Sari Nazionalak 1964. urtean emana izan zenak.

Baina herri batek emandako kultura eta hizkuntza gorde eta bultzatzeko kezkarekin batean, hor da hizkuntza bera maila guztietan hazteko gogoia, bai literatur sailean eta bai ikertze eta teknikarenean ere. Horretarako behar-beharrezkoa da euskerak irakastokietan eta begibelarrizko komunikabideetan sarrera izatea, eta hizkuntza hunen hiztegia egungo terminologietara jar-tzea.



Xede hoik finkatzeko sortu zen Euskaltzaindia Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko Diputazioen babespean. Bizkaiko Diputazioak, mila bederatzirehun eta hamazortzigarren urteko urtarrilaren hogeita bosteko bilkuratan, elkargoa hau sortzea erabaki zuen, eta gainerako Diputazioek erabaki honi beren baiezkua eman zioten. Beste aldetik, Oinatiko Unibertsitate zaharrear, esan den urte horretan –mila bederatziehun eta hamazortzigarrenean, alegia– Euskal Estudioen Bilera ospetsu bat egin zen, eta hartan burutu zen Euskaltzaindiaren sagaratzea. Jaun Errege Alfonso XIII.ak, Bilera hari hasiera ematerakoan, hitz gogoangarri hauek esan zituen:

Herriaren aitzinamendu eta aurrerapenari lagun dezaketen orori lot zakizkiote, lant ezazue zeuen hizkuntza, euskera beneragarri eta zahar-zahar hori, gizadiaren gordailuko pitxi preziatua den hori, zuek zeuen gurasoetarik hartu duzuen eta zeuon seme-alabei osorik eman behar diezuen.

Ordutik Euskaltzaindia etengabe lanean ari da, sorreran egotzi zitzaizkion xedeok bate nahiz, erresumako kultura eta altxorraren zati handi bat den eta espainiar askok erabiltzen duen hizkuntza hunen batasuna bultzatuaz. Hargatik, euskeraren begiratze eta ikertze lanerako, Euskaltzaindiaren zeregina Estatuak aitortzea baino gauza hoberik ez da. Hala egin nahi du, bere aitona argiaren hitz gogoangarriekin ados, Juan Carlos I Errege jaunak.

Beraz, Heziera eta Jakintzako Ministroak proposaturik, eta mila bederatziehun eta hirurogei eta hamasei-



garren urteko otsailaren hogeiko batzarrean Ministroen Kontseiluak gauza aztertu ondoan,

## ORDENATZEN DUT:

*Lehenbiziko artikulua.* Euskaltzaindiaren onartzea egiten da, beronen lan-eremua Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko probintziak direlarik.

*Bigarren artikulua.* Akademia honen izena hemendik aurrera honela izanen da: «Euskaltzaindia», Euskararen Erret Akademia.

*Hirugarren artikulua.* Euskaltzaindiaren Arautegia ontzat ematen da. Beronen testua hemen dator, Dekretu honen eranskin bezala.

Hala agintzen dut Dekretu honen bidez. Madrilen emana, mila bederatzehun hirurogei eta hamaseigarren urteko otsailaren hogeiei eta seian.

JUAN CARLOS

Heziera eta Jakintzako Ministroak,  
CARLOS ROBLES PIQUER

## EUSKALTZAINDIA

Euskeraren Erret Akademiaren Arautegia

### *Xedeak eta izaera*

*Lehen artikulua.* Euskaltzaindia Instituzio bat da, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko



lau Diputazioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:

- a) Euskeraren gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea.
- e) Euskeraren enplegua aitzinatzea.
- f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.
- g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.
- h) Literatur eta ikas lehiaketak eragitea.
- i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren katedrak bultzatuz (1).
- j) Euskarari dagozkionetan erakunde aholku-emaile ofiziala denez, agiriak eman eta irizpide eta diktamenak luzatzea (2).

---

(1) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(2) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



*Bigarren artikulua.* Egiteko hauen arauaz, bi sail ditu Euskaltzaindiak: *Iker* saila eta *Jagon* saila.

### *Egitura*

*Hirugarren artikulua.* Hogeita lau euskaltzain osoz, euskaltzain emerituz, euskaltzain urgazlez eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik (3).

*Laugarren artikulua.* Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, EuskalERRI guztikoak izan behar dute. Era hor-tara euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten.

*Laugarren bis artikulua.* Euskaltzain emeritu mailara, ezintasunagatik edo adinagatik euskaltzain oso direnak pasatuko dira. Emerituek euskaltzain osoaren kideko maila gordeko dute. Barne-erregelatan garatuko dira euskaltzain emerituekiko xehetasunak (4).

*Bosgarren artikulua.* Euskaltzaindiak zuzendaritza bat izango du, honako kide hauek osatua: Euskaltzainburuak, Buruordeak, Idazkariak, Diruzainak, *Iker* sailburuak eta *Jagon* sailburuak.

---

(3) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(4) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



Guztiek euskaltzain oso izan beharko dute. *Iker* sailburua nahiz *Jagon* sailburua euskaltzain buruorde ere izan daitezke aldi berean (5).

*Seigarren artikulua.* Idazkariorde eta Kudeatzaile bat izenda daitezke, alogeraz ordainduak. Hauek ez dira euskaltzain osoak izango (6).

*Zazpigarren artikulua.* Euskaltzain oso nahiz laguntzaileetarik Gutunzain bat izendatuko da.

*Zortzigarren artikulua.* Zuzendaritzari dagokio lan batzordeetan parte hartuko duten pertsonen izenak proposatzea, eta Euskaltzaindiaren bilkura, erabaki eta lanei buruz ageri berriketariak idaztea.

*Bederatzigarren artikulua.* Euskaltzainburuaren ahal eta eginbideak hauetxek dira:

- a) Elkargoaren bilkuretan buru izatea.
- b) Euskaltzaindiaren Arautegi, erregela eta erabakiak bete ditezten begiratzea.
- c) Instituzioaren ordezkaritza, lagun eta elkargoa mota guztien aurrean eramatea.

---

(5) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(6) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



d) Elkargoaren erregela eta erabakiek eman ditzaioketen beste zereginak betetzea.

*Hamargarren artikulua.* Euskaltzainburu-ordezkoari dagokio: Euskaltzainburua falta denean, haren lanak egitea.

*Hamaikagarren artikulua.* Idazkariaren zereginak dira:

a) Batzar-ageria egitea. Eta Euskaltzainburuaren oniritziak izanpetzea, onartu ondoan.

b) Hartutako eskutitzen erantzutea eta beroien berri batzarretan ematea.

c) Urteoroko *Oroit-idazkia* prestatzea eta Euskaltzaindira, hartako batzarrean, aurkeztea.

d) Ordezkaritzetako lanak kidekatzea.

e) Batzarreen eta Zuzendaritzaren erregela eta erabakietarik heldu ohi zaizkion gainerako zereginak betetzea.

*Hamabigarren artikulua.* Diruzainari dagokio:

a) Edozein arrazoigatik elkargoak hartu behar dituen diruak jasotzea.

b) Pagakizunak egitea.

c) Euskaltzaindiari hiru hilabetez behin kontu errendatzea; Euskaltzainburu nahiz Zuzendaritzari, eskatzen zaion bakoitzean, egingo dionaz gainera.

*Hamahirugarren artikulua.* Idazkariordeari dagokio:

a) Idazkaria falta denean, haren lanak egitea.





b) Bulego arazoak aitzinatzea, Euskaltzainburu edo-  
ta Idazkariaren oniritziak, gaiak nola diren.

c) Euskaltzainburuaren aginduz, joan den ba-  
tzarretako akta eta heldu deneko deia, erabiliko diren  
gaien zerrendaz, batzarkide guztiei bidaltzea.

d) Ordezkaritzetako eta lan-taldean lanak koordina-  
tzen Idazkariari laguntzea (7).

*Hamahirugarren bis artikulua.* Kudeatzaileari dagokio:

a) Diruzaina falta denean, haren lanak egitea.

b) Bulego arazoak aitzinatzea, Euskaltzainburu edo-  
ta Diruzainaren oniritziak, gaiak nola diren.

c) Euskaltzaindiaren etxeetan zeregin arrunten arta  
izatea eta langileen ardura kudeatzea.

d) Ordezkaritzetako eta lan-taldeetako langileen  
ardura laborala kudeatzea (8).

*Hamalauugarren artikulua.* Gutunzainari dagokio:

a) Elkargoaren liburu, esku izkribu eta gutunak gorde  
ta ondozkatzeta.

---

(7) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia;  
errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak,  
otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(8) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia;  
errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak,  
otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



b) Liburu, esku izkribu eta gutun hoiak, uztea, jarritako erregela berezi batzuen arauaz.

c) Etxera diren liburu nahiz gutunen berri ematea.

### *Etxea eta Ordezkaritzak*

*Hamabosgarren artikulua.* Euskaltzaindiak Bilbon du bere etxea. Haren egungo egoitza Plaza Barria, 15 da (9).

*Hamaseigarren artikulua.* Ordezkaritzak sor daitezke probintzietako hiriburuetan.

### *Elkargoaren Bilkurak*

*Hamazazpigarren artikulua.* Erakundearen batzarrak ohikoak eta ohiz kanpokoak izango dira, barrengoak eta agerikoak. Hilabete oro, ahal dela, ohiko barrengo batzar bat egingo da, euskaltzain oso guztiak joatera behartuak daude, eta joaterik ez baldin badute, ezin etorria agertu behar dute. Euskaltzain emerituak ez daude ohiko barrengo batzarretara joatera behartuak. Artikulu honen zehaztapena Barne-erregeletan garrantuko da (10).

---

(9) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(10) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuak berridatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak. Gero-garrenean, ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuak aldarazi du, errege-dekretu horrek eraldatu baititu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



*Hemezortzigarren artikulua.* Ohiko barrengo batzarretan barne-gaiak eta akademi gaiak erabiliko dira. Akademi gaiak aztertzen direnean ohorezkoek eta ur-gazleek ere joateko eskubidea eta hitza izango dute, baina botorik gabe (11).

*Hemeretzigarrren artikulua.* Ageriko batzarrak, euskaltzain oso berrien sarreretan, gorazarre, oroitzen eta Zuzendaritzaren iritziz halako ospe bereziaz inguraturik egotea komeni den paradetan eginen dira (12).

*Hogeigarren artikulua.* Ohiz kanpoko bilerak Zuzendaritzaren aginduz ez beste bilduko dira. Bilkura horiek biltzera beharturik dago Zuzendaritza, bost euskaltzain osok idatziz hala eskatzen dutenean (13).

*Hogeitabatgarren artikulua.* Erabakiak nagusitasunez hartuko dira, eta, behar denean, Arautegi honetan berriaz agintzen den «quorum» delakoaz. Aski da euskaltzain oso batek hori eskatzea bozketa izkutua egin dadin.

---

(11) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(12) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(13) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



*Hogeita bigarren artikulua.* Batzarretara ez etortzeko arrazoi taxuzkoa duten euskaltzain osoek beren botoa idatziz edo beste euskaltzain oso baten bidez (hartarako ahala honi emanaz) igor dezakete. Euskaltzain emerituek ezin dezakete bozketa ahalmen hori erabil. Iritziak berdin agertzen badira, euskaltzainburuak izanen du azken hitza (14).

*Hogeita hirugarren artikulua.* Euskaltzainburua eta Buruordea batzarrera etor ez balitez Euskaltzaindian zaharrena den euskaltzain osoa izanen da buru.

*Hogeita laugarren artikulua.* Idazkaria falta denean, azkenengo izendatua izan den euskaltzain osoak egingo du haren lana.

*Hogeita bosgarren artikulua.* Euskaltzainburuak alde zuzenetik axola handikotzat jo dituen arazoak erabaki behar direnean, erabakiak indarra izan dezan, proposamenak, lehen deian, euskaltzain osoen botoen gehiengo osoa erdietsi behar du; bigarren deian, berriz, aski da gehiengo soila (15).

*Hogeita seigarren artikulua.* Axola handikotzat jo gabeko arazoetan, aski izanen da euskaltzain oso batek

---

(14) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(15) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



hori eskatzea, arazo hura hurreneko batzarrera arte mahain gainean utz dadin.

### *Elkargoaren Dirutza*

*Hogeita zazpigarren artikulua.* Hona erakundearen ditu iturriak:

a) Estatu, Autonomia, Foru nahiz Udaletako aginteen, edo eta erakunde, elkarte eta gizabanakoen laguntza eta emaitzak.

b) Euskaltzaindiaren argitalpen, lan eta zerbitzuen etekinak.

c) Euskaltzaindiak bere ondarearen ustiapenetik eskura dezakeen beste edozein diru sarrera (16).

### Karguen hautatzea

*Hogeita zortzigarren artikulua.* Zuzendaritzako karguak lau urterako izanen dira. Izendatuak berriro hata-tuak izan daitezke (17).

*Hogeita bederatzigarren artikulua.* Hautatzea, bo-zketa izkutuz eginen da, hartarakotzat soilki bilduko den bilkura berezi barrengo batetan.

---

(16) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(17) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



*Hogeita hamargarren artikulua.* Kargu berritzea eginen den bilkurarako deia, hamabost egun aurretik guxtienez bidali behar da, eta egitarauan hautatzea aipatuko da.

*Hogeita hamaikagarren artikulua.* Hautatzea errutsua izan dadin, gaiak nagusitasun osoa erdietsi beharko du. «Quorum» hori izango ez balitz, bozketa berria eginen da, eta orduan aski da nagusitasun soila.

*Hogeita hamabigarren artikulua.* Zuzendaritzako lagunen hautatzea eta kargu hartzea urtearen azken laurdenean egingo dira.

*Hogeita hamahirugarren artikulua.* Euskaltzain oso baten heriotzagatik, edota ezintasun ala adinagatik emeritu mailara pasatu delako, euskaltzain osoen hutsuneak gertatzen direnean ohiko batzarrean jakinaraz bitez, eta hutsuneok hornitzeko proposamenak horren hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira (18).

*Hogeita hamalagarren artikulua.* Euskaltzain osoa izateko proposamendua hiru euskaltzain osok izenpetu behar du. Proposamenduaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz.

*Hogeita hamabosgarren artikulua.* Euskaltzain oso hautatua izateko, euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi behar da.

---

(18) Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



*Hogeita hamaseigarren artikulua.* Euskaltzain oso berrien sarrera ageriko batzarrean eginen da. Euskaltzain hautatu berriak sarrera hitzaldia eginen du, eta euskaltzain oso batek erantzungo (19).

*Hogeita hamazazpigarren artikulua.* Bi urtez behin ikusiko du Euskaltzaindiak ea euskaltzain laguntzaile berririk izendatu behar ote den.

*Hogeita hemezortzigarren artikulua.* Inor Euskaltzain laguntzaile izenda dadin, proposamendua bi euskaltzain osok izkribuz egin behar du, eta izkribu horretan gaiaren merezimenduak aipatuko dira. Hautatua izateko, euskaltzain osoen bozen nagusitasuna behar da, gainera.

*Hogeita hemeretzigarren artikulua.* Euskaltzain oho-zkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskerari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamendua behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egina, eta Batzarren onartzea.

## Agerkariak

*Berrogeigarren artikulua.* Euskaltzaindiak aldizkako agerkaria argitaratuko du, eta han hizkuntza eta literatura lanekin batean, Erakundearen akta eta erabakiak

---

(19) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.



etorriko dira. Honez gain, Erakundearen xedeei dagozkien argitalpenak kaleratuko ditu (20).

### *Emendailuzko Araua*

*Berrogeita batgarren artikulua.* Arautegi honetako erabakiak, behar diren Barne-erregela eta erregela berezien bidez, garatzeko ahalmen osoa du Euskaltzaindiak (21).

*Euskera, XXI, 1976, 2, 15-23. orr.*

---

(20) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

(21) Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

